

discoak

**N**



**Le Mans**  
*Aquí vivía yo* ■ Elefant

**Malenkonia jantzia**

Pixkanaka iragarri nahi izan zigtuten agurra, eta zortzi urteko ibilbidean izan duten jarrerari eutsiz, donostiarrek dotorezia erakutsi dute taldearen ibilbideari amaiera emateko orduan ere. Izan ere, *Mi novela autobiográfica* eta *Yin Yang* EPetan eraku-

tsitako heldutasuna dario Le Mansen azken diskoari, *Aquí vivía yo* malenkoniatsu honi.

*Saudade*-n bezala, Ibon Errazkinen gitarra akustikoak gidatzen du lan osoa, baina disko hartan ez bezala, *Aquí vivía yo* lanean orain arte ezkutuan gorde dituzten musika tresnak erabili dituzte. Tronpetak, pianoak, perkusioak, samplerrek eta, batez ere, mandolinak aberastasun izugarria eman diete, berez oso ederrak diren baina konponketarik gabe hotzak gerta zitezkeen kantu askori. Joneren ahotsa sensualak ere areagotu egiten du *Papá negro*, *Buenos días, cora-*

*zón* eta *No vino, estaba enferma o de vacaciones* kantuen berotasuna. Eta zer esan hitzei buruz. Dagoeneko berba gutxirekin sentimendu handienak azaltzea lortu dute. Diskoari eta taldearen ibilbideari bukaera emateko, urte hauetan guztietan grabatu duten abesti ederrenetakoarekin (*Sic transit gloria mundi*) itxi dute diskoa, Josetxo Anitua (Cancer Moon) eta Tito Pintado (Penelope Trip, Telefilme, Anti) laguntzaile dituztela. ■ **mikel lizarralde**



**Estrellas de Areito**  
*Los héroes* ■ World Circuit / Arpafolk

Ez dira, ez, pieza berriak, baina izugarritzko gaurkotasuna erakusten dute. 1979.eko azaroan grabatu zuten Habanako Egrem-eko estudioan Areito zigiluko artista nagusiek, hau da, hogeita hamar instrumentu jole eta kantarik. Bost album sortu ziren biler hartatik, baina ordutik ezin iza dira aurkitu. Hamalau kantu luze hauetan New York eta Puerto Rico sorturiko *salsa*-ren erantzuna dugu: «Si te hablan de la salsa, Ámentira, se llama son!», dio Pio Leyvak *Póngase para las cosas* hasierako kantuan. Egia da: izena aldatzeak ez du axolarik. Musikarien zerrenda itzela da: Richard Egues, Miguelito Cuni, Arturo Sandoval, Tito Gomez, Paquito D'Rivera, Felix Chapotin, Jesus Rubalcaba, Ruben Gonzalez, Tata Guines, Enrique Jorrin, Teresa Garcia Caturla... Hogeitazero geroago batzar haren suak pizturik segitzen du, *son*, *guaguanco*, *pregon*, *charanga*, bolero eta aba-

rez. Orduko argazki ugari, kantuen hitzak eta azalpen pilo bat (ingelesez) barruko liburuxkan. Etxean edukitzeko modukoa. ■ **roberto kribi**



**Naun**  
*...eta legeaz landako gure mintzairan solastuko* ■ Zaunka

Pare bat kantu lasai samarrak izan arren eta beste kantu batzuetan *hard-core* edo rock ukituren bat ere ageri, *mid tempo* erritmoak dira nagusi Naun taldearen —eta Zaunka zigilu berriaren— lehenengo disko luzean. Haien gainean, gogotak, kezak eta sentimenduak azaltzen dituzte, mundu zikin honen erdian, eta hainbatetan pentsamendu horiek haserre bihurtzen dira. Gitarrak dira ardatz nagusi, baina Naunekoek melodiak eta leloak ere zaintzen dituzte. Jorge Reboredorekin grabatu dituzte kantuak, bi saiotan, eta saio bateko kantuen nahasketak beste saiokoenak baino orekatuagoak eta trinkoagoak geratu zaizkie. Lan txukuna osatu dute. Soinua ona da, indartsua; ahots nagusia

politza da, eta musika tresna bakoitza bere tokian dago. Nahiz eta Naunen doinuek gauza berri handirik ez esan, lana ondo egina dago. *Preso egon denaren gogo*, *Kaleko kronika* eta *Egunen batean* dira nire kantu gustukoena. Diseinu lana ere ondo egina dago, eta, batez ere, kontrazaleko eta liburuxkako irudiak gustatu zaizkit. Azalekoa, berriz, ez zait asko gustatu. ■ **Joxi Ubeda**



**Askoren artean**  
*Stereoparty IV* ■ Subterfuge

Dover taldearen arrakasta komertzial izugarriari esker, Espainiako disketxe independente indartsuena bilakatu da Subterfuge hamargarren urtemuga betetzear dagoenean, eta egun ere, Cristina Llanosen taldeak multinazionalen bidea aukeratu duenean, jarraitzen du proposamen berriei bidea ematen. *Stereoparty IV* da horren adibide garbiena.

*Stereoparty IV*-k Madrilgo zigiluaren arma guztiak erakusten dizkigu, bere alde guztiekin. Zigiluaren katalogo orokorrari begiratu bat ematen badiogu, Undersha-

**Ainhoa Gozategi** ren...  
10 ezinbestekoak

«Lehenengo hiru diskoak gureak aukeratu ditut; horiek gustatzen ez bazaizkit, gaizki gabilta!», dio barrez.

**1. Gozategi (Gozategi):**

**2. Ainhoa (Gozategi):**

**3. Kalanbreak (Gozategi):**

**4. Hertzainak (Hertzainak):**

Garai bateko hitzak eta musika dira, eta uste dut eragin zabala izan zutela garai hartan. Talde honen beste diskoak ere gustatu zaizkit.

**5. Azken guda dantza (Kortatu):**

**6. Negu Gorriak (Negu Gorriak):**

Zoratu egiten ninduten kanta haiek. Gainera, nire lehen kontzertuak dakarzit gogora. Baita Delirium Tremens ere.

**7. Hitaz oroit (Benito Lertxundi):**

Kontzertuetatik bueltan gatozenean, sarritan, kotxean jartzen dugu. Erlaxatu egiten nauten doinuek horiek.

**8. Clandestino (Manu Chao):**

Lehenengo abestia entzuten dudun bakoitzean oilo larrua jartzen zait, dardaraka hasten naiz. Ez dakit nola azaldu.

**9. Peio eta Pantxoa (Pantxoa eta Peio):**

Beraien disko guztiak gustatzen zaizkit, baina hori bereziki. Melodiak oso politak dira, eta hitzek guztia esaten dute.

**10. Bilbao 00h (Kepa Junkera):**

Fenomeno bat da Kepa, eta bere talde guztia. Fandango izugarri bat ere biltzen du diskoan. Munstro bat da bera.

kersek, Mercrominak, Purr donostiarrek, eta guztien gainetik, Sexy Sadiak ekartzen dituzte unerik gozoean, baina badira CDan azken aldiari oihartzun handia izaten ari den pop naifaren ordezkari pare bat —Los Fresones Rebeldes eta TCR—, eta baita apustu berriak ere —B-Coretik iritsitako From Head to Toe—. Bestalde, Subterfuge 80ko hamarkadako zorioneko mobidako kantu galduak berreskuratzen ari da, eta horiek ere badute tokia sampler honetan —Alaska y los Pegamoides, Ciudad Jardin, Paralisis Permanente eta Glutamato Ye-ye—. Bildumaren eklektikotasunaren adierazgarri, *lounge* musika ere entzun dezakegu Mastretta eta Alfonso Santistebanen eskutik, eta diskoaren azken atalean, soinu elektronikoa nagusitzen dira Najwajean, Smol Tosi eta Jeanekin. Fangoriaren *Mi gran noche* ezinbestekoarekin ixten da bilduma irregular bezain interesgarri hau. ■ **mikel lizarralde**

**antena**  
**jarrita**

Bide Ertzean taldearen lehenengo lan luzea eta Mikel Urdangarin abeslariaren bigarren diskoa izango dira **Gaztelupeko Hotsak** disketxeak datozen hilabeteotan kaleratuko dituen aurreneko bi diskoak. Iaz kaleratutako maxiaren ondotik, Tolosako taldeak martxoaren bigarren hamabostaldian grabatuko du *Zure minari* izeneko diskoa. Kantuen hitz guztiak Jose Luis Otamendi poetarenak izango dira. Bestalde, Mikel Urdangarinen bigarren diskoa —*Badira hiru aste*— kaleratu izango da hurrengo egunean. Diskoan musikari bikainek hartu dute parte —Pello Ramirez, Luis Camino, Eñaut Elorriaga, Igor Arzuaga, Jonathan Bews, Galash Eskoziako taldea—.

**Blur** taldeak heldu den martxoaren 15ean argitaratuko du bere seigarren diskoa, *13*. Disko berria William Orbitek ekoitzi du —aurrekoak Stephen Streetek ekoitzi zituen—. Diotenez, pop musika baztertu gabe, lan berrian joera esperimentalagotara hurbildu dira ingelesak, eta The Fall, Nick Drake eta Fausten izenak ere aipatu dituzte beren musika definitzeko orduan.

**Festimad** jaialdia maiatzaren 14an eta 15ean izango da, Madril. Hasiera batean, apirilaren 30ean eta maiatzaren lehenean zen egitekoa, baina, azkenean, nazioarteko talde ugariarentzat egokiagoak direlakoan, maiatz erdialdeko bi egunean kokatu dute. Antolatzaileek oraindik ez dituzte jakinarazi Festimaden joko duten taldeen izenak, baina dagoeneko salgai jarri dituzte bi egunetarako bonuak, 7.500 pezetan.

Tamla Motown musika beltzaren disketxeako artista ugari **Frank Sinatraren** errepertorioan ohikoak ziren kantuen bertsioak egin zituzten 60 eta 70eko hamarkadetan, eta orain, *crooner* handia hil ondoren, disko batean bildu dituzte abesti horiek. *Motown Celebrates Sinatra* CDan, beste batzuen artean, Diana Ross and the Supremesek (*The lady is a tramp, Strangers in the night*), The Temptationsek (*Night and day*), Marvin Gayek (*Something stupid, One for my baby, Witchcraft*), Stevie Wonderrek (*The lonesome road*) eta Smokey Robinson & The Miraclesek (*The best is yet to come*) egokitutako kantuak azaltzen dira.